



3x3

ARRAZOI ON EMAS-ERA KO

Hobetu ezazu zeure ingurumen-jokabidea
ingurumen-kudeaketaren estandar onenarekin



*Europe Direct Europar Batasunaren inguruan
dituzun galderak erantzuten laguntzeko zerbitzu
bat da*

DOAKO TELEFONO-ZENBAKIA*:

00 800 6 7 8 9 10 11

** Telefonía mugikorreko operadore batzuek ez dute onartzen
00800 zenbakietarako deirik, edo dei horiek fakturatu ditzakete.*

LIBURUXKA HONEN INGURUAN

Badira arrazoi on asko erakunde bat –pribatua edo publikoa, handia edo txikia- EMASen erregistratu dadin. Liburuxka honetan, bederatzi arrazoi garrantzitsuenak konpartitzen ditugu zurekin.

Argitalpen hau oinarritzen da Alemaniako EMASen aholkularitza-kontseiluak 2009/2011n argitaratu zuen “7 Good Reasons for EMAS” izeneko liburuxkan. Berau eskuragarri dago, alemanez eta ingelesez, helbide honetan: www.EMAS.de/service/pdf-down-loads/ugags-broschueren

Europar Batasunari buruzko informazio gehiago interneten: www.europa.eu

Fitxa bibliografikoa argitalpen honen amaieran dago.

Luxenburgo: Europar Batasunaren
Argitalpen Bulegoa, 2012

ISBN: 978-92-79-26096-4

DOI: 10.2779/67448

© Europar Batasuna, 2012
Erreprodukzioa baimenduta dago iturria
aipatzen bada.

3x3 ARRAZOI ON EMAS-ERAKO

Sarrera	02
3x3 Arrazoi on Emas-erako › Laburpena	03
1 Baliabideen efizientzia	04
2 Klimaren babesa	06
3 Enpresaren gizarte-erantzukizuna	08
4 Legedia betetzea	10
5 Hornidura-katearen kudeaketa eta Erosketa Publiko Berdea	12
6 Informazio sinesgarria	14
7 Jokabidearen neurketa	16
8 Langileen inplikazioa	18
9 Interes-taldeen inplikazioa	20
Hasi zaitetz! EMASen urratsez urratseko implementazioa	22
Argitalpenaren informazioa	24

SARRERA

EMAS › JOKABIDE HOBEA, SINESGARRITSUNA ETA GARDENTASUNA

Ingurumen-jokabidearen bikaintasuna negozio-abantaila garrantzitsu bilakatzen ari da. Ingurumen-erronkei ikuspegi proaktibo batez heltzen dieten erakundeek bideak bilatzen dituzte euren ingurumen-jokabideak etengabe hobetzeko eta euren ingurumen-lorpenak interes-taldeei eta gizarte osoari komunikatzeko.

Batasunaren Ingurumen-kudeaketako eta Ikuskaritzako Sistema (EMAS) EBk ingurumen-kudeaketarako sortu duen borondatezko tresna bat da, erakundeei helburu horiek lortzen laguntzera zuzendua. Ingurumen-kudeaketako EMAS sistemak tamaina guztietako konpainia eta erakundeek erabiltzen dituzte, mundu osoan. EMASen erregistratzen diren erakundeek konpromiso bat hartzen dute, alegia, euren ingurumen-jokabidea ebaluatzea, kudeatzea eta hobetzea. Ingurumen-kudeaketako premium sistema hau inplementatzeak eramaten du erregistratutako erakundeen jokabidea, sinesgarritasuna eta gardentasuna azpimarratzera.

EMASekin erantzuna aurkitzen duzu era guztietako erakundeek gaur egun aurrean dituzten kudeaketa-erronka nagusientzat: baliabideen efizientzia, klima-aldaketa eta enpresaren gizarte-erantzukizuna. Gainera, EMASek indartu egiten du zure erakundeak arriskuei aurre egiteko eta aukerak identifikatzeko duen gaitasuna, ingurumen-kudeaketaren prozesu eta egiturak sistematikoki inplementatzearen bitartez. Azkenik, EMAS bereizten dituzten ezaugarriek esker, hala nola informazioa ingurumen-adierazpenaren bidez ematea edo jokabidearen adierazle nagusiak aplikatzea, zure erakundeak arrakastaz nabigatuko du jasangarritasunaren erronka konplexuetatik.

EMAS GLOBALA › MUNDU OSOKO INGURUMEN-KUDEAKETARIK ONENA

Gobernuek, kontsumitzaileek, gobernuz kanpoko erakundeek, hedabideek eta beste interes-talde batzuek ingurumen-jokabide hobea eskatzen diete konpainiei, mundu osoan. EMASen erregistratutako konpainien ingurumen-jokabidearen hobekuntza sistematikoak haien lehiakortasuna indartzen du eta haien irudi eta ospea nabarmentzen ditu. EMASen mekanismo globalaren bitartez, EMAS mundu osoan dago eskuragarri, ISO 14001 bezala.

EMAS ETA ISO 14001 › OSAGARRITASUNAK ETA DESBERDINTASUNA

EN ISO 14001: 2004 ingurumen-kudeaketako sistemaren betekizunak EMASen osagai dira. Nolanahi ere, EMAS harago doa eta merkatuan dagoen ingurumen-kudeaketako tresnarik sinesgarriena eta indartsuena da. EMASen kalitate hobearen arrazoia honako hauek dira:

- ➊ *betekizun zorrotzagoak ditu ingurumen-jokabidea helburuen arabera neurtzeko, ebaluatzeko eta etengabe hobetzeko;*
- ➋ *ingurumen-legediaren betearazpena segurtatzen du gobernuaren ikuskapenaren bitartez;*
- ➌ *langileen inplikazio sendoa;*
- ➍ *ingurumen-adierazle nagusiek urteen arteko alderaketa egitea ahalbidetzen dute erakundearen barnean, eta ingurumen-adierazpen balidatuek publiko osoarentzako informazioa eskaintzen dute; eta*
- ➎ *administrazio publiko batek erregistratzen du, ingurumen-egiaztatzaile akreditatu batek ziurtapena egin eta gero.*

3x3 ARRAZOI ON EMAS-ERAKO LABURPENA

KUDEAKETAREN ALORREKO ERRONKA NAGUSIAK

BALIABIDEEN EFIZIENTZIA: baliabideen efizientzia kontzeptu erraz batean oinarritzen da: baliabideen erabilera eta haren ingurumen-inpaktua minimizatzen baduzu, funtzio-namenduaren kostuak jaisten dira eta mozkinak hazten dira. Esperientziak erakusten duen bezala, ingurumen-kudeaketa sistematikoak nabarmen jaisten ditu hondakin-sorreraren kostuak eta energia- eta ur-kontsumoa.

KLIMAREN BABESA: EMASen erregistratutako erakundeak ondo prestatuta daude interes-taldeek haien aldetik espero dutena betetzeko, klima-aldaketa egiten dioten ekarpenari dagokionez. Berotegi-efektuko emisioak nabarmen murriztu daitezke. Gainera, EMASen erregistratutako konpainiek euren ingurumen-jokabidea ikuskatzen dute. Horrek esan nahi badutela euren energia-kontsumoari eta emisioei buruzko datu multzo oso bat.

ENPRESAREN GIZARTE-ERANTZUKIZUNA: enpresaren gizarte-erantzukizunari (EGE) soilik dagokionez, konpromisoa ez da nahikoa. Izan ere, enpresek euren eguneroko jardunean erakutsi egin behar dute konpromiso hori. EMAS kudeaketa- eta informazio-tresna fidagarritzat hartzen da, eta lagungarria da EGEaren aplikaziorako.

ARRISKU ETA AUKEREN KUDEAKETA

LEGEDIA BETETZEA: EtMASek erakundeei laguntzen die legezko betekizunak betetzen dituztela erakusterakoan. Hirugarren alderdi independente baten bidezko egiaztapenak erakundeen legezko eta erantzukizuneko segurtasuna hobetzen du, haien ospeari eusteaz batera. Horrek hobetu egin dezake merkatuko balioa.

HORNIDURA-KATEAREN KUDEAKETA ETA EROSKETA PUBLIKO BERDEA: erakundeei eskatzen zaie euren zeharkako ingurumen-inpaktuak kontuan hartu ditzatela, hala nola haien balio-katearen ingurumen-alderdiak (hornidura-katearen kudeaketa). Erreferentziako dokumentu sektorialak garatzen dira lehentasuneko sektoretarako, horien bidez erakusteko zein den biderik onena ingurumen-inpaktuak minimizatzeke, alderdi garrantzitsuetan.

Jokabidea etengabe hobetzeko betebeharrak eta EMAS sistemaren fidagarritasuna ingurumen-jokabide onaren bermeak dira. Horrenbestez, EMASen erakundeek euren ingurumen-jokabidea nabarmendu dezakete EPBko lizitazioetan parte hartzen dutenean. Gainera, enpresen arteko erosketak "berdea" erabil lezakete euren hornidura-katearen jasagarritasuna hobetzeko.

INFORMAZIO SINESGARRIA: EMASek errazten du erakundeen ingurumen-jokabidearen komunikazioa, modu erraz eta sinesgarrian; izan ere, urtero ingurumen-adierazpen bat argitaratu behar du, eta adierazpen hori modu independentean balidatzen da. Honek konfiantza sortzen du, zeren EMASen erregistratutako erakundeek erakusten baitiote publikoari ez dutela ezer ezkutatzeko.

EMAS BEREIZTEN DUTEN EZAUGARRIAK

ABIDEAREN NEURKETA: EMASen sei ingurumen-adierazle nagusiak lagungarriak dira ingurumen-jokabidea modu egokian neurtzeko eta ikuskatzeko, ezarritako helburuei dagokienez; halaber, urte arteko alderaketak egitea ahalbidetzen dute, bai erakundearen barnean eta bai erakundeen artean. Era horretan, EMASek ahalbidetzen du alderatzea nola ematen duten erakundeek euren informazioa.

LANGILEEN INPLIKAZIOA: EMASen erregistratutako erakundeek sistematikoki inplikatzeko dituzte euren langileak ingurumena babesteko jardueretan, eta horren onurak jasotzen dituzte. Izan ere, inplikaturako langileak oso motibatuta egoten dira, erakundearekin identifikatzen dira, eta, hortaz, leialagoak izaten dira. Bestalde, horrek lan-giro positiboa sortzen du eta errendimendu hobeak lortzera eramaten du.

INTERES-TALDEEN INPLIKAZIOA: interes-taldeekiko harremanak konplexuak dira, zeren barne hartzen baitituzte hornitzaileak, administrazio publikoak, gizarte zibilaren erakundeak, bezeroak, tokiko komunitateak, hedabideak eta beste alderdi batzuk. EMASek harreman horiek garatu eta hobetzeko tresnak eskaintzen dizkie erregistratutako erakundeei.

1

BALIABIDEEN EFIZIENTZIA

EMASen erregistratzeko dagoen lehenengo arrazoi ona da programak funtsezko rola jokatzeko duela baliabideen efizientzian. Baliabideen efizientziaren zuzeneko ondorioa da irabaziak handitzen direla baliabideen erabilera, ingurumen-inpaktuak eta operazio-kostuak jaistearen bidez. Ingurumen-kudeaketa sistematikoak nabarmen murrizten ditu hondakinen sorrera eta energia- eta ur-kontsumoa. Hori are garrantzitsuagoa da lehengaien horniduraren gabezia eta baliabideen erauzketa ez-jasangarria maila kritikoetara iritsi direlako. XX. mendean soilik, erregai fosilen erabilera eta baliabide materialen erauzketa hamar halakotu zen mundu osoan. 2050. urterako aurreikusita dago munduko biztanleria 9.000 milioira iritsiko dela, eta horrek areagotu egingo du baliabideen gaineko presioa.

LEHIAKORTASUNA EFIZIENTZIA HOBETZEAREN BIDEZ BULTZATZEA

Enpresen jarduerak estu lotuta daude baliabide naturalak etengabe eskuratzearekin. Horrenbestez, baliabideen urritasun gero eta handiagoak eta prezioen igoerak faktore ekonomiko garrantzitsu bihurtzen dute baliabideen efizientzia. Ikerketek erakusten dute EMASen erregistratzeak nabarmen murriztu ohi duela material eta energiaren kontsumoa, batez ere baliabideen kontsumo intentsiboko sektoreetan. Baliabideen efizientziaren bidez lortzen diren kostu-murrizketak EMASen kostuak baino handiagoak izaten dira sarritan.¹

- EMAS inplementatzearen bidez, Espainiako garagardoan adarreko Mahou-San Miguel taldeak nabarmen hobetu zuen baliabideen efizientzia. 2010ean EMAS Sarien irabazle izan zen garagardo-enpresa honek Eskura dauden Teknologiarik Onenen neurriak ezarri zituen, eta horren bidez % 20 murriztu zuen bere plantetako ur-kontsumoa, 2000az geroztik; halaber, % 34 murriztu zuen osoko energia-kontsumoa.²
- 2010eko EMAS Saria erakunde txikien kategorian irabazi zuen erakundea Ecoprint da, Estoniako inprimaketa-enpresa bat. EMAS inplementatzean, enpresa txiki honek "Inprimaketa Berdea" garatu zuen, hots,

Estoniako merkatuko lehenengo inprimaketa-zerbitzu ekologikoa. Horren bitartez, Ecoprinten baliabideen efizientzia nabarmen hobetu ahal izan zen. Aipatu beharreko lorpenen artean, honako hauek daude: euritako ura erabiltzea inprimategiko motelgailuetan -kalkulatzen da horrek % 60 inguru murrizten duela ur-kontsumoa-; % 44ko murrizketa bulegoko paperaren erabileran, 2009an; eta energia aurrezteko haize-turbinak eta eguzki-panelak erabiltzearen bitartez.³

- Baliabideen erabilera efizientearen hirugarren adibide aipagarria EMASen erregistratutako Zientzia Aplikatuaren Alemaniako Unibertsitate bat da. Haren Ingurumen-kudeaketako Sistemaren funtsezko elementu bat ikasleen inplikazioa da. Iradokizunak egitearen bidez, ikasleek laguntzen dute ingurumen-kudeaketako sistema hobetzen, eta, ondorioz, unibertsitatearen ingurumen-jokabidea ere bai. Ikasleen inplikazioa lortzen da baliabideen efizientziaren gaiei buruz ikasleen artean egiten den inkesta baten bitartez. Adibidez: kontsumo elektrikoa murrizteko xedez unibertsitateak aplikatu dituen neurriek esker (adibidez: energetikoki efizienteak diren ordenagailuak hornitzea, edo IT saileko ordenagailuak gauzez itzaltzeko programatzea) 62.1 tona CO₂ aurreztu dira urtean, hots, 15.525 €. ⁴



EMAS ETA BALIABIDEEN EFIZIENTZIA › LEHENENGO URRATASK

EMASen erregistratutako erakundeek oso tresna egokiak dituzte euren baliabideen efizientzia hobetzeko. Baliabideen efizientziari lotutako gaiak EMASen implementazioaren urrats guztietan lantzeak emaitza onenak ematen ditu. EMASen erregistratzearen lehenengo urratsa da ingurumen-inpaktu esanguratsu guztiak identifikatzea. Horrek ahalbidetzen die erakunde guztiei euren operazio-kostuen eragile nagusiak zein diren jakitea. Erakundearen energia- eta baliabide-kontsumoaren fluxu guztien inventario exhaustibo hori bai eragile handietan zein enpresa txikietan aplikatu daiteke.

Efizientziaren potentzialak ebaluatzeko, gomendagarria da ingurumen-adierazleak ezagutzea. Ingurumen-hobekuntzak neurgarri eta alderagarri bihurtzen dira EMASen ingurumen-jokabidearen adierazle nagusiak erabiltzearen bidez; adibidez: materialen efizientzia, hondakinak edo ura.

ESKURA DAUDEN FRUITUAK ETA EPE LUZERAKOAK

Eskura dauden fruituak “zuhaitzaren beheko partetik hartzearen” bidez aurrezpen mardulak lortu daitezke, erlatiboki txikiak diren ahaleginekin (adibidez: argiteria-sistemak hobetzea efizientzia handiko bonbillak eta argi-sentsoreak jarriz). Hasierako neurri horietan inbertitutakoaren erretornuak segurtatzen du zuzendaritza eta langileen osoko konpromisoa. Langileen inplikazioa bereziki garrantzitsua da, zeren haiek baitakite, beste inork baino hobeto, “non estutzen duen zapatak”.

Hurrengo urteetan, EMASen erregistratutako erakundeek jaso ditzakete EMASen epe luzerako onurak, (ikaskuntza) prozesu sistematikoak txertatuz euren ingurumen-jokabidea etengabe hobetzeko. Hainbat azterlanek erakusten dutenez, erakundeen finantza-jokabidea hobetu egiten da langileek gehiago ikasten dutenean ingurumen-kudeaketari buruz. 5 EMAS kudeaketa-erabaki estrategikoekin uztartzeak bermatzen du erakunde osoak bere ekarpena egiten diola ingurumen- eta ekonomia-jokabidearen hobekuntza etengabeari.

INFORMAZIO GEHIAGO:



EMASek baliabideen efizientzia nola sustatzen duen azaltzen duen informazio gehiago eskura daiteke orrialde honetan: www.ec.europa.eu/environment/EMAS/pdf/factsheet/EMASResourceEfficiency_high.pdf

Europako Batasunak baliabideen efizientziari buruz eskaintzen duen informazioa hemen dago ikusgai: www.ec.europa.eu/environment/resource_efficiency



JOKABIDEA
SINESGARRITASUNA
ARDENTASUNA

EMAS

2

KLIMAREN BABESA

EMASen erregistratzeko dagoen bigarren arrazoi ona da programa honek klima-aldaketari aurre egiteko jokatzeko duen funtsezko rola. Interes-taldeek gero eta erantzukizun handiagoa eskatzen diete enpresei euren negozio-jarduerek klima globalean duten inpaktuagatik. Espero dute enpresek ekarpen aktiboa egin diezaiotela klima-aldaketa arintzeko ekimenari. EMASen erregistratutako konpainiak (eta beste erakunde batzuk) ondo prestatuta daude itxaropen horiek betetzeko. Berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak nabarmen murriztu daitezke. Gainera, EMASen erregistratutako erakundeek euren ingurumen-jokabidea ikuskatzen dute. Horrek esan nahi du datu multzo oso bat dutela euren energia-kontsumoari eta emisio (industrialei) buruz. Informatzeko betekizunak betetzeaz gain, datu horiek lagungarriak dira emisioak murriztea ahalbidetzen duten kostu txikiko aukerak identifikatzeko.

EMAS ETA ENERGIAREN KUDEAKETAREN ARAUAK

Efizientzia energetikoa agenda politiko eta ekonomikoaren goiko postuetan dago. 2011n, arau berri bat argitaratu zen energia kudeatzeko sistematarako: ISO 50001. Arau honek definitzen ditu enpresek bete behar dituzten betekizunak euren efizientzia energetikoa etengabe eta sistematikoki hobetzeko. Arauaren egitura EMAS programaren egituraren antzekoa da, jokabidea hobetzeko eta informazio emateko ezartzen dituen betekizunengatik.

EMASen erregistratutako erakundeek jadanik betetzen dituzte ISO 50001 arauen betekizun gehienak. Bakarrik gehitu behar dituzte neurri txiki batzuk ISO 50001en betekizunak betetzeko. Bestalde, ISO 50001 ziurtagiria duten konpainiek ere neurri txiki batzuk soilik gehiago behar dituzte EMAS inplementatzeko.

EMAS ETA BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN MURRIZKETAK

EMASekin, erakundeek etengabe ikuskatzen dute euren energia-kontsumoa eta posizio onean daude Europako emisioen salerosketa sisteman parte hartzeko (EU ETS). EU ETS da BEGen emisioen eskubideen salerosketarako eratu den lehenengo nazioarteko sistema, baita handiena ere. BEGez informatzea funtsezkoa da EU ETSk ondo funtzionatu dezan. EMASek eskatzen duen egiaztapena kontuan hartzen da erakundeen emisioen datuak aztertzerakoan. EBko Estatu batzuek onura ukigarrietan islatzen dituzte EU ETSk ezartzen dituen informazio-betekizunak, EMAS programa EU ETSrekin lotzearen bidez.

Alemanian –adibidez-, EMASen ingurumen-egiaztatzaileak baimenduta daude EU ETSk emisioei buruz ezartzen duen txostena egiaztatzeko, euren lizentziaren sektorean. Gainera, BEGen emisioen baimenen aplikazioak egiaztatu ditzakete. Alor praktikoan, horrek esan nahi du Alemaniako ingurumen-egiaztatzaileek ontzat eman dezaketela EMASen erregistratutako erakunde baten ingurumen-adierazpenaren emisioen atalak EU ETSren betekizunak ere betetzen dituela.



Horrenbestez, EU ETS programak datuak biltzeko eta prestatzeko eskatzen duen lana murriztu egiten da EMASen erregistratutako erakundeentzat. Nolanahi ere, derrigorrezkoa da datuak lekuan bertan kontrolatzea.

E-PRTR ERREGISTROAREN ARABERA INFORMATZEA

Europako legediak ezartzen duenez, sektore industrial jakin batzuetako emisioen datuak publikoari jakinarazi behar zaizkio, eta horretarako ezarri zen Europako Kutsatzaileen Emisioen eta Transferentzien Erregistroa (E-PRTR). EMASen erregistratutako erakundeek euren ingurumen-jokabidea publikoki jakinarazten dutenez, horrek errazten die emisioei buruz informatzea E-PRTRren baitan dauden erakundeei. Sinergia horrek erraztu egiten du emisioei buruzko datuak bildu, prozesatu eta aztertzeko lana.

INFORMAZIO GEHIAGO:



EN 16001 eta EMASen betekizun guztien laburpena: www.EMAS.de/service/pdf-downloads

ISO 50001: www.iso.org/iso/iso_catalogue/management_and_leadership_standards/specific_applications_energy.htm

EU ETSri buruzko informazioa: www.ec.europa.eu/clima/policies/ets/index_en.htm

E-PRTR emisioen erregistroari buruzko informazioa: www.prtr.ec.europa.eu

EN 16001 arauari buruzko informazioa enpresa eta erakundeentzat, Alemaniako Ingurumen Ministerio Federalak argitaratua: www.bmu.de/english/economy_products/downloads/doc/46418.php

3

ENPRESAREN GIZARTE-ERANTZUKIZUNA

Enpresen erantzukizuna ez da komertziala soilik, baizik eta baita ingurumenekoa eta soziala ere. Ideala da hiru zutabe horiek –ekonomia, ingurumena eta gizartea, edota jendea, planeta eta mozkinak- elkarrekin uztartuta egotea. Gaur egun, Enpresaren Gizarte-erantzukizuna (EGE) ondo finkatutako kontzeptu bat da. “Beraren bitartez, enpresek gizarte- eta ingurumen-kezkak txertatzen dituzte euren negozio-operazioetan, euren borondatez”.⁶

EGE-AREN ONURAK

Gero eta enpresa gehiago konturatzen dira gizarte- eta ingurumen-jokabide ona onuragarria dela euren irudiarentzat, eta, gainera, kostuak aurrezte eta negozio-aukera berriak aurkitzea ahalbidetzen duela. EGEak kostuak murrizten ditu; adibidez: demandatuak izateko arriskua eta kontsumitzaileen pertzepzio negatiboa murriztearen bidez. Aldi berean, EGEak balio erantsia sortzen du elementu hauen bidez: hedabideen informazio positiboa, “doako” edo “ahoz ahoko” publizitatea, langileak enpresan mantentzea, langileak errazago eskuratzea eta produktibitatearen igoera.

Nazioarteko egitura globalak eratu dira konpainiei laguntzeko euren gizarte- eta ingurumen-inpaktuak osorik kudeatzeko eta horietaz informatzeko. Egitura horien artean, honako hauek daude: “Global Reporting Initiative” (GRI), NBEren Global Compact, ELGEren Enpresa Multinazionalentzako Gida, eta ISO 26000 araua. Azken hori gizarte-erantzukizunerako gida bat da. Enpresa multinazionalen artean, EGE arau bihurtzen ari da, salbuespena izan beharrean: kalkulatzeko munduko 250 konpainia handien % 80k informazioa ematen duela bere jasagarritasun-jokabideaz. 7 la 1.900 erakundek GRIan oinarritutako jasagarritasun-txostenak argitaratu zituzten 2010ean.⁸

EMAS, EGE-AREN INGURUMEN-ZUTABE GISA

Ingurumen-kudeaketako sistemek, batez ere EMASen betekizunak betetzen dituztenek, EGEaren ingurumen-dimentsio osoa hartzen dute barne. Mundu osoan EMASen erregistratuta dauden erakundeek modu sistematikoan kudeatu eta hobetzen dituzte euren ekoizpen-prozesuen ingurumen-alderdiak. Gainera, EMASen erregistratutako erakundeak guztiz gardenak dira euren ingurumen-jokabideari dagokionez. EMASen araudiak modu garbian definitzen ditu EMASen erregistratutako erakundeek bete behar dituzten irizpideak. EMASen erregistratutako erakundeek ingurumen-adierazpen baten bidez informatzen dute euren ingurumen-jokabidean izan dituzten hobekuntzez. Horrek behartzen ditu funtsezko ingurumen-alderdi multzo batez informatzera.

EMASen ingurumen-adierazpenaren informazio guztia ingurumen-egiaztatzaile akreditatu/baimendu batek balidatzen du. EMASen ingurumen-egiaztatzaileak independenteak dira, eta haiek ere kontrolatuta daude, EBko Estatuen bitartez (EMASen agintaritza eskudunak eta EMASen akreditazioak/baimenak ematen dituzten erakundeak). EMASen erregistratze-prozesuaren izaera independente eta kanpokoak segurtatu egiten ditu programaren sinesgarritasuna eta fidagarritasuna, baita erregistratutako erakundeek ematen duten informazioaren sinesgarritasuna eta fidagarritasuna ere.



EMASen erregistratze-prozesu sendo horren emaitza da EMASen ingurumen-adierazpenak hirugarren alderdi batek balidatzen dituela beti; EGEaren txostenen kasuan, aldiz, hori ez da derrigorrezkoa. Gainera, EMASen erregistratutako erakundeek langileak inplikatu behar dituzte aktiboki ingurumen-kudeaketako jardueretan eta horri buruzko prestakuntza eman behar diete. EMASek erakusten du erakundeek abantailak lortzen dituztela euren langileen inplikazio sistematikotik, zeren barneko ingurumen-aditu eta sistemaren jabe bihurtzen baitira. Horrek, sarritan, langileen morala igotzen du eta zeharkako ondorio positiboak izaten ditu gizarte-jokabidean, zeren langile konprometituak izatea funtsezkoa baita EGEaren kudeaketaren arrakastarako.

Alderatzen baldin bada ausaz aukeratutako EGE adierazpenen –erakundeek berek eginak- edukia erakunde horiek argitaratutako EMASen ingurumen-adierazpenekin, alderaketa horrek erakusten du azken adierazpen horietako datuen xehetasun maila lehenengoena baino handiagoa dela, ekoizpen alorreko alderdiekin lotutako zuzeneko ingurumen-alderdiei dagokienez. Beraz, EMASen ingurumen-adierazpenek oinarri fidagarri eta sendoa eskaintzen dute EGE txostenen ingurumen-atalerako.

INFORMAZIO GEHIAGO:



Europako Batzordearen EGEari buruzko webgunea: www.ec.europa.eu/enterprise/policies/sustainable-business/corporate-social-responsibility/index_en.htm

EMASen eta ISO 26000 arauaren arteko alderaketa sakon bat hemen aurkitu daiteke: *»The links between EMAS and ISO 26000«*, EU EMASen webgunean.

Nazioarteko Estandarizazio Erakundeak: ISO 26000 ezagutzuz: www.iso.org/iso/iso_catalogue/management_and_leadership_standards/social_responsibility/sr_discovering_iso26000.htm

GRI: www.globalreporting.org

UN Global compact: www.unglobalcompact.org

4

LEGEDIA BETETZEA

Konpainien etikara zuzendutako interes publikoa handitu izanaren eraginez, legedia betetzen dela segurtatzea funtsezkoa da epe luzera aurrera egin nahi duten erakundeentzat. Horri begira, EMAS tresna bikaina da erakusteko erakundeek bete egiten dituztela legezko betekizunak. Horrek murrizten du ingurumenarekin lotutako demandak jasotzen arriskua, eta legezko segurtasuna handitzen du. Horrenbestez, ingurumen-arazoei lotutako informazio negatiboen izenburuetan agertzeko arriskua ere minimizatzen da, eta horrek handitu dezake erakundeen merkatu-balioa. Legedia betetzen dela egiaztatzea EMASen erregistratzeko aurre-baldintza bat denez, ez da beharrezkoa legedia betetzeari buruzko auditoria gehiagorik egitea.

LEGEA BETEATZEN DELA SEGURTATZEA

EMASen erregistratuta egon ahal izateko, erakundeek erakutsi behar dute legedia betetzen dutela. Betekizun horren eraginez, EMASen egiaztapena betetzearen gaineko kontrol bat izan da beti. Kontrol hori kanpoko ingurumen-egiaztatzaile independente batek egiten du. Egiaztatzaile hori, bere aldetik, gobernuko agintaritzaz nazionalen kalitate-kontrolaren mende dago. Barneko ingurumen-auditoriak (legedia betetzeari buruzko auditoriak), kanpo-egiaztatzaileen bidezko egiaztapena eta erregistroaren aurretik ingurumen-administrazio eskudunak egiaztapen horretan egiten duen kontrola uztartzea da legedia betetzen dela segurtatzeko modurik onena.

Horrenbestez, EMASen logoak sinesgarritasuna segurtatzen du interes-taldearen artean: bezeroak, gobernu-agintaritzak, gizarte zibilaren erakundeak eta publikoa. Gainera, EMASen erregistratzea da modurik onena bermatzeko hedabideetan ez dela agertuko ingurumen-gaiekin lotutako albiste-izenburu negatiborik.

DEMANDATUAK IZATEKO ARRISKU TXIKIAGOA

EMASen onura aitortuenetako bat gorabehera negatiboen jaitsiera da. EMASen erregistratze-prozesuan sartutako lege-ikuskapen sakonak nabarmen murrizten du erakundearen erantzukizuna, eta baita ingurumen-erantzukizunean oinarritutako demanda desatsegin eta garestien arriskua ere. Horri esker, enpresak trabarik gabe funtzionatzen du, eta horrek balorazio eta ebaluazio hobekak ekartzen ditu inbertitzaileen eta aseguru-konpainien aldetik.



ARAU-MALGUTASUNA

Balidatutako ingurumen-adierazpen batek frogatzen du aplikatzekoak diren ingurumen-araudiak osorik betetzen direla. Horren ondorioz, EBko herrialde batzuetako administrazio eskudunek malgotu egin dituzte euren erregulazioak, batez ere ikuskatzeko, informatzeko eta dokumentatzeko betebeharrei dagokienez. Malgutusun administratiboaren adibide bat da ingurumen-administrazioa jadanik eginda dauden EMAS ingurumen-adierazpenak erabiltzen ari direla, hondakinen kudeaketarekin lotutako adierazpen berriak edo bereziak eskatu beharrean. Gainera, baimenak eskatzen dituzten erakundeek prozeduraren kostuak murriztu ditzakete jadanik prestatuta duten EMAS dokumentazioa erabiliz.

Legea betetzen duten erakundeek ingurumen-ikuskapen gutxiago jaso ohi dituzte, gutxiagotan berriztatu behar izaten dituzte euren baimenak, edo ikusten dute haien baimenetarako eskabideek lehentasuna izaten dutela. Gainera, zenbait kasutan, administrazio arautzaileek finantza-abantailak ematen dizkiete. Adibidez: Alemaniako Bavaria eskualdean % 50eko deskontua aplikatzen zaie hondakinen gaineko tasei, eta Emilia-Romagnako eskualde italiarrean % 30 deskontua egiten zaie EMASen erregistratutako konpainiei. Azken eskualde horretan, gainera, IED⁹ (industrial emissions directive) baimen bat lortzeko kostuak merkeagoak dira EMASen erregistratutako konpainientzat.¹⁰

LEGEDIAREN ALDAKETETARAKO PREST

EMAS enpresa-estrategiako prozesuetan ere da erabilgarria. Izan ere, etorkizuneko lege-garapenei buruz informatzen ditu bere parte-hartzaileak. Era horretan, bere ingurumen-kudeaketako sistema abiatzen edo berrikusten ari den erakunde batek aurre hartu diezaieke aldaketei eta onartzekoak diren araudiak txertatu.

INFORMAZIO GEHIAGO:



Irakur ezazu gehiago legedia betetzearen onurez “EMAS Benefits” informazio-orrian, Europako EMASen webgune ofizialean.

5

HORNIDURA-KATEAREN KUDEAKETA ETA EROSKETA PUBLIKO BERDEA

Ingurumenaren babesa ez da erakundeen atarian gelditzen. Erakunde arduratsu gisa jokatzek barne hartzen du ingurumen-alderdien kudeaketa sistematiko eta estrategikoa, balio-kate osoan. Testuinguru horretan, bi tresna dira bereziki garrantzitsuak: hornidura-katearen kudeaketa eta Erosketa Publiko Berdea. EMASek bi tresna horien erabilera errazten du erakundeen barnean.

HORNIDURA-KATEAREN KUDEAKETA

Ingurumen-kontsiderazioen gaineko kontzientzia publikoa nabarmen hazten ari da, hornidura-kate osoari dagokionez. Horren adibide bat da nazioarteko egunkari batean orain dela gutxi agertutako artikulu baten izenburu "lazgarri" hau:

"Ingurumen-kutsadura hornitzailearen ekoizpen-plantan. Enpresa multinazional batek ingurumen-erakundeen kritika jaso du negozio-praktika arduragabeengatik". Norberaren konpainiatik kanpoko ingurumen-jokabidean eragina izatea erronka bat da, batez ere herrialde askotan diharduten enpresentzat. Bada, EMASek lagundu diezazuke erronka hau gainditzten!

EMAS globalki aplikatu daitekeenez, hornitzaileei programa inplementatzen laguntzea da modurik onena hornidura-katearen arriskuak mundu osoan minimizatzen direla bermatzeko. Ikaskuntza-prozesuak eta ingurumen-jokabidearen datuen transferentzia nabarmen erraztuko dira. Azkenik, hau lagungarria da legedia betetzeko eta langile informatuak eta ingurumenaz kontzientziatuak trebatzeko.

Halaber, EMAS inplementatzeak potentzial handia du merkatu "berdeetan" sartu nahi duten hornitzaileentzat. Erosle askok EMAS premium etiketa nahiago izaten dute, eta, hortaz, puntu gehiago ematen dituzte hornitzailea ebaluatzean.



EROSKETA PUBLIKO BERDEA: AURREIKUSPEN HOBEAK EMASEKIN

Europako Administrazio Publikoek eroste-ahalmen handia dute. Urtean 2 trilioi euro inguru gastatzen dituzte, hau da, Europar Batasuneko BPGaren % 19aren adinakoa.¹¹ EBko nazio eta eskualde mailako administrazio publiko ugari Erosketa Publiko Berdeko (EPB) politika zorrotzak ezartzen dituzte, eta ingurumen-faktoreak hartzen dituzte kontuan produktu edo zerbitzuak erosterakoan.

Kontratazio-administrazioek eska diezaiekete lizitatzailerak erakutsi dezatela gai direla ingurumen-kudeaketako neurriak aplikatzeko kontratuaren indarraldian; adibidez: zubi bat eraiki behar denean naturagune babestu batean. Halaber, kontratazioak ingurumen-irizpideak ezar ditzake langileen (ingurumen) prestakuntza profesionalerako. Horrelakoetan, EMAS erregistroa froga nahikotzat jo daiteke aukeraketan irizpide espezifiko hori betetzen dela erakusteko.

INFORMAZIO GEHIAGO:



Europar Batasunaren EPBar buruzko webgune ofiziala: http://ec.europa.eu/environment/gpp/index_en.htm

Europako Batzordearen
»Buying Green!« gidaliburua:
http://ec.europa.eu/environment/gpp/pdf/handbook_2016_es.pdf

6

INFORMAZIO SINESGARRIA

Gure “informazioaren aro” honetan, ia era guztietako informazio digitala berehala dago eskuragarri nonahi eta edonorentzat. Gobernuen eta enpresen komunikazioarekin ere gauza bera gertatzen da. Euren irudi publikoa babesteko eta konfiantza sortzeko xedez, konpainientzat funtsezko bihurtu da euren ingurumen-jokabidea (modu digitalean) komunikatzea, modu garbi eta sinesgarrian. EMASek erraztu egiten du hori, zeren modu independentean egiaztatzen den ingurumen-adierazpena argitaratzera behartzen baitu urtero. Horrek konfiantza eta segurtasuna sortzen ditu; izan ere, EMASen erregistratutako erakundeek erakusten diote euren publikoari ez dutela ezer ezkutatzeko.

INGURUMEN-ADIERAZPENA

EMASen ingurumen-adierazpenek ingurumenari buruzko informazio, gertaera eta zifra esanguratsuak laburbiltzen dituzte, modu egituratuan. Baimendutako edo akreditatutako ingurumen-egiaztatzaile independenteez kalitate-kontrol zorrotza egiten diote adierazpenari. Ingurumen-adierazpenak emaitzen berri ematen du eta erakundearen ingurumen-helburuekin alderatzen ditu. Halaber, adierazten du zer neurri hartu nahi dituen erakundeak etorkizunean bere ingurumen-jokabidea hobetzeko. Ingurumen-adierazpen bat bereziki garrantzitsua da funtsezko interes-taldeekin modu irekian komunikatzeko. EMASen ingurumen-adierazpenak publikoaren esku jarri behar dira beti.

SINESGARRITASUNA, BALIDAZIOAREN BIDEZ

Oso enpresa gutxik argitaratzen dituzte ingurumen- edo jasangarritasun-adierazpenak euren jokabidearen adibide deigarriekin. Sarritan, txosten horiek emaitza onenetako batzuk aukeratu eta deskribatzen dituzte, beste arlo batzuetako jokabide eskasagoa ezkutatu. Batzuetan, gainera, euren berek jartzen diote adierazpenari kalitate-kontrolaren zigilua, euren sortua. Hori ez da horrela EMASekin!

EMASek irizpide garbi eta objektiboak ezartzen ditu ingurumen-azterketa eta -adierazpenetarako. Hemen ezin da onena aukeratu. Erakunde eskudunek akreditatutako edo baimendutako eta ikuskatutako ingurumen-egiaztatzaile independenteez soilik dute ahalmena EMASen ingurumen-adierazpenak balidatzeko. EMASen erregistratze-prozesuaren kanpo-izaerak eta independentziak bermatzen dituzte programaren sinesgarritasuna eta erakunde erregistratuek emandako informazioaren fidagarritasuna. EMASen erregistratze-prozesuaren sendotasunari esker, EMASen ingurumen-adierazpenak hirugarren alderdien bidez balidatzen dira beti; EGE txostenen kasuan, aldiz, hori ez da horrela nahitaez.



EMASen kalitate-marka –EMAS logo ofiziala– erregistratutako erakundeek soilik erabil dezakete. Erakundearen erregistro-zenbaki indibidualak eragozten du kalitate-marka horren erabilera ilegala. EMASen erregistratutako erakunde guztiak EMASen erregistro ofizialaren zerrendan daude, eta zerrenda hori online dago eskuragarri publikoarentzat.

EMAS-EN LOGOA

EMASen logoa (eskuinaldean) komunikazio- eta marketing-tresna bisual erakargarri bat da. Beraren asmoa da nabarmentzea erakundeak etengabe hobetzen duela bere ingurumen-jokabidea. Logoa EMASen erregistratutako erakundeek soilik erabili dezakete. Logoaren erabilerak kontzientzia sortzen du interes-taldeen artean. Halaber, legediaren betearazpena, tokiko erantzukizuna, langileen inplikazio aktiboa eta ingurumen-informazioaren fidagarritasuna eta sinesgarritasuna ere nabarmentzen ditu.



INFORMAZIO GEHIAGO:



EMASen erregistro ofiziala hemen dago eskuragarri: www.ec.europa.eu/environment/EMAS/register



JOKABIDEA
SINESGARRITASUNA
ARDENTASUNA

EMAS

7

JOKABIDEAREN NEURKETA

Ingurumen-kudeaketa sistematikoaren helburu nagusia da ingurumen-jokabidea hobetzea. Nolanahi ere, jende guztiak daki “neurtu dezakezuna dela kudeatu dezakezun gauza bakarra”. EMASen sei ingurumen-adierazle nagusiek modu egokian laguntzen dute ingurumen-jokabidea neurtzen eta kontrolatzen, ezarritako helburuei lotuta. Gainera, adierazleak oinarritzkoak dira ingurumen-informazio esanguratsuena interes-taldeei jakinarazteko: inbertitzaileak, kreditu-emaileak, balorazio-agentziak, gobernuz kanpoko erakundeak eta beste batzuk.

DATU KUANTITATIBOEN BEHARRA

Energia, ura eta beste baliabide batzuk gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari diren testuinguru honetan, kudeatzaileek –produktio sailetik hasita eta goi zuzendaritzara helduz- ingurumen-datu kuantitatiboak behar dituzte jokabidea helburuei lotuta ebaluatzeko. Horixe da modu bakarra erakunde baten jokabidea ulertzeko, joerak identifikatzeko eta erabakiak hartzeko. Horrez gain, datu kuantitatiboak erabiltzearen bidez jokabidea konkurrentziarekin alderatu daiteke edo erreferentzia bat izan. Halaber, datu kuantitatiboak sortzeak ahalbidetzen du interes-taldeekin hitz egitea erakundearen ingurumen-jokabidearen indarrei eta ahuleziei buruz, gertaerak oinarritzat hartuta. Interes-taldeetatik jasotako feedbackak informazio baliagarria ematen du erakundearen lehia-abantaila handitzeko formaz.

EMAS-EN JOKABIDE-ADIERAZLEAK

Konpainia baten ingurumen-jokabidea modu kuantitatiboan neurtzeko eta erakusteko, adierazleak funtsezkoak dira. Nolanahi ere, adierazle egokiak aukeratzea arrakastaren ezinbesteko baldintza da. Ingurumen-kudeaketaren ISO 14001 arauak ez bezala, EMASek sei jokabide-adierazle hauek ematen dizikie erregistratutako erakundeek:

- 1. EFIZIENTZIA ENERGETIKOA**
- 2. MATERIALEN EFIZIENTZIA**
- 3. URA**
- 4. HONDAKINAK**
- 5. BIODIBERTSITATEA**
- 6. EMISIOAK**



ERREFERENTZIAZKO DOKUMENTU SEKTORIALAK

Oinarrizko adierazleen erabilerak ahalbidetzen du urtez urteko alderaketak egitea, erakundearen ingurumen-jokabidearen garapena ebaluatzeko. Aldi berean, sektore barneko eta sektoreen arteko alderagarritasuna hobetzen du. Adierazle bakoitzerako, inputa eta outputa erlazionatzen dira. Adibidez: energia-kontsumoa ekoiztutako produktu bakoitzeko. Adierazleek adierazten dute zer-nolako efizientzia eta eraginkortasuna dituen erakundearen prozesuak. Input eta outputei buruzko adierazle jakin batzuek aurrezpen esanguratsuak identifikatu ditzakete, eta erakundearen kostuak murrizten lagundu dezakete.

2012az geroztik, Europako Batzordea, EBko Estatuekin eta beste interes-talde batzuekin kontsultatuz, erreferentziako dokumentu sektorialak garatzen ari da (EDS). EDSak iturri baliagarriak dira sektoreen jokabide-adierazle espezifikoetarako. Ingurumen-jokabidea hobetzera zuzendutako ingurumen-kudeaketako jardunbide egokiak deskribatzen dituen informazio tekniko zehatzaz gain, erreferentziako dokumentu hauek sektoreen oinarrizko jokabide-adierazleak biltzen dituzte, eta baita bikaintasunerako erreferentziak ere.

INFORMAZIO GEHIAGO:



EMASen adierazleei buruzko informazio zabala “EMAS Indicators” informazio-orrian aurkitu daitezke, Europako EMASen webgunean.

EMASen erreferentziako dokumentu sektorialeiei buruzko informazio gehiago hemen aurkitu daiteke: www.susproc.jrc.ec.europa.eu/activities/EMAS

8

LANGILEEN INPLIKAZIOA

Zeure langileak dira daukazun aktiborik onena zure ingurumen-jokabidea nabarmentzerakoan. EMASen erregistratutako erakundeek horixe aitortu dute. Euren langileak inplikatzen dituzte sistematikoki ingurumena babesteko jardueretan, eta horren onurak jasotzen dituzte. Inplikatutako langileak oso motibatuta daude, erakundearekin identifikatzen dira eta, hortaz, leialagoak dira. Horrek, berriz, lan-giro positiboa sortzen du eta jokabidea hobetzera eramaten du.

LANGILEEN ESPERIENTZIA ERABILIZ

Langileak oso kualifikatuta eta prestatuta daude identifikatzeko bai irabazi azkarrak eta bai ingurumen-jokabidea epe luzera hobetzeko neurriak. Euren erakundearen egitura eta prozesuak ondo ezagutzen dituztenez, hobekuntzarako potentziala ikusten dute eta kostu aldetik efizienteak diren irtenbide bideragarriak identifikatzen dituzte ingurumen-kudeaketaren erronketarako. Halaber, langileen inplikazioa lagungarria da irtenbide berritzaileak identifikatzeko, eta, hortaz, prozesu eta produktu berriak sortzeko. EMAS lagungarria da langileak euren lanaren ingurumen-alderdiez sentsibilizatzeko. Azkenik, langileek (ingurumen)-hobekuntzarako egiten dituzten iradokizunek eta haien inplementazioak EMASen aldeko sostengua sortu eta mantentzen dute.

Horrenbestez, EMASek errazten du langileen, zuzendaritzaren, enpresa-batzordearen eta langile-taldeen arteko lankidetzak. Horrek, ingurumen-hobekuntzak ekarri ez ezik, lagungarria ere bada talde tematikoak eratzeko sailen artean; adibidez: laneko osasun eta segurtasunari buruzko gaietan.

LANGILEEN MOTIBAZIORA ZUZENDUTAKO KUDEAKETA

EMASen bitartez, langileek ingurumen-lorpenei buruzko informazioa jasotzen dute sarritan. Horrek handitzen du haien motibazioa erakundearen ingurumen-helburuak lortzeko. Pertsonalaren aldizkari batean argitaratutako artikulu positibo bat edo ingurumen-adierazpena egiten lagundu duen langile bati egindako elkarrizketa bat oso motibatzaileak izan daitezke. Orobat, EMASen erregistratutako erakundeek langileen parte-hartzea bultzatu eta akuilatzen dute ingurumenaren babesaren alorrean. Adibidez, langileek sariak jaso ditzakete euren hobekuntzarako iradokizunek ekarpen esanguratsua egiten badiote erakundearen ingurumen-helburuen lorpenari.



INGURUMEN-PRESTAKUNTZAK JOKABIDEA HOBETZEN LAGUNTZEN DU

Langileen gaitasunak hobetzea eta haien eguneroko portaera eta ikusmoldea funtsezkoak dira ingurumen-kudeaketako sistema bideragarri bat inplementatzeko. EMASen bitartez, erakundeek langileak trebatu ditzakete euren lanak izan ditzakeen ingurumen-inpaktuez eta norberaren jokabidea hobetzearen onurez.

Prestakuntzak erakundeen arrakasta segurtatzen du, eta, gainera, langileei hazten eta euren karrera hobetzeko ezagutza garatzen laguntzen die; hori, berriz, langileen motibazioan islatzen da.

TALENTUA ERAKARTZEA ETA LANGILEEN LEIALTASUNA

Talentua erakartzeko eta enpresan mantentzeko gaitasuna funtsezkoa da gure garaiko ekonomiaren munduan. Esperientziak erakutsi duenez, konkurrentziatik euren ingurumen-konpromisoagatik bereizten diren erakundeentzat errazagoa da talentu berria erakartzea. Epe luzerako prestakuntza-neurriak lagungarriak dira langileak ingurumenaz kontzientziatzeko eta lanean ingurumenarekin konprometituta jarraitzeko. Gainera, erakundearen sinesgarritasuna finkatzearen bidez, EMASen erregistratutako erakundeetako langileek euren erakundearekin duten identifikazioa beste erakunde batzuetako langileena baino sendoagoa da.

INFORMAZIO GEHIAGO:



EMAS sarien 2011ko edizioaren sei irabazleek langileen inplikazio bikaina erakutsi dute. Irakurri gehiago horretaz hemen: www.ec.europa.eu/environment/EMAS/EMAS_awards/index.htm

9

INTERES-TALDEEN INPLIKAZIOA

Interes-taldeei informazioa ematea eta talde horiek ingurumenaren kudeaketan modu aktiboan inplikatzeak ingurumen-jokabidea hobetzen du eta berrikuntza bultzatzen du. Interes-taldeen inplikazioak barne hartzen ditu erakundearen eragina duten interesak eta eragileak, eta, alderantziz, baita erakundearen eraginpean daudenak ere. Interes-taldekiko harremanak konplexuak dira, askotariko eragileak inplikatzen dituztelako: hornitzaileak, administrazio publikoak, gizarte zibilaren erakundeak, bezeroak, tokiko komunitateak, hedabideak eta beste batzuk. EMASek harreman horiek garatzeko eta hobetzeko tresnak eskaintzen dizkie erregistratutako erakundeei.

INTERES-TALDEEN INPLIKAZIOAK JOKABIDEA HOBETZERA ERAMATEN DU

Erakundeek hartutako funtsezko konpromiso bat da euren ingurumen-jokabidea etengabe hobetzea, interes-taldekiko elkarriketa irekiaren bitartez. EMASen ingurumen-adierazpenaren irekitasunak eta gardentasunak beste programa batzuetatik bereizten dute eta konfiantza eraikitzen laguntzen dute. Erregistratutako erakundeek erakusten dute euren interes-taldeen inplikazioa ez dela ariketa tekniko hutsa, euren enpresa-kulturaren zait integral bat baizik.

Adibidez: hornitzaile adituen inputa baliabideen efizientzia hobetzeko erabil daiteke, produktu baten balio-kate osoan. Halaber, enpresa batek biodibertsitateari buruzko ekimen batean kolaboratu dezake, biodibertsitatean duen inpaktuaren eta ur, lehengai eta bestelakoengatik ekosistemarekin duen mendetasunaren arteko balantzea ebaluatzeko.

HARREMAN INDARTUAK

Informazio sinesgarria ematea funtsezko aktibo bat da EMASen erregistratutako erakundeentzat, interes-taldekiko konprometitzeari dagokionez. Erakunde askok adierazi dute euren administrazioarekiko harremanak indartu egin direla EMASen erregistratzearen bidez. Horrek, berriz, kanpikuskapenak murriztera eraman du, eta baita onarpen-prozedura erraztera ere. Hori baloratzekoa da publikoak konpainia baten ingurumen-jokabideaz duen pertzepzioa negatiboa denean, zeren horrelako kasuetan zaila baita baimenak eskatzea eta plangintzaren onarpena lortzea.

Halaber, EMASek ahalbidetzen die enpresei elkarriketak irekitzea gobernuz kanpoko erakundeekin (GKEak). Horri esker, GKEek datu konkretuak ezagutzen dituzte eta ez dute espekulatu behar prozesuen izaeraz eta emisioen kopuruaz. Horrek elkarrenganako ulermena hobetzen du eta albiste negatiboak prebenitu ditzake. EMASek tokiko erantzukizuna azpimarratzen du eta auzokide onen modura jokatzeko laguntzen die enpresei. Hori bereziki garrantzitsua da (ekoizpen)-plantak bizilekuetatik gertu dituzten enprezentzat.



Harreman indartuetan inbertitzeko forma bat langileak konpainiaren enbaxadore moduan erabiltzea da. Informazioa eman diezaiokete publikoari enpresan egiten diren “ate irekien” egunetan. Eskualdeko ikastetxeekin batera, konpainiek bisitak antolatu ditzakete ikasleentzat, eta ingurumen-babes praktikoaren adibideak erakutsi ditzakete, “kontzientzia ekologikoa duen lantegi batean”.

BERRIKUNTZA ETA JOKABIDEAREN HOBEKUNTZA SUSTATUZ

Interes-taldeekin inplikatzeko lagungarria da enpresaren estrategian txertatu daitezkeen joerak identifikatzeko. Adibidez, online eztabaida-foroen bitartez, interes-taldeek ingurumen-adierazpena komentatu dezakete kanpotik, eta, halaber, ideia berritzaileak konpartitu, erronkak planteatu eta feedbacka jaso. Beste aukera bat “berrikuntza irekia” da, kanpoko arazo-konpontzaileak enpresaren berrikuntzan integratzen dituenak. Unibertsitateek, GKEek edo kontsumitzaile indibidualek euren beharrak azaldu ditzakete eta produktu edo zerbitzu ekologiko berrien garapenean parte hartu.

INFORMAZIO GEHIAGO:



2011ko EMAS sariaren gaia “*interes-taldeekin inplikazioa*” izan zen. Jakin ezazu gehiago irabazleei buruz eta euren interes-taldeekin inplikatzeko jardunbideei buruz, hemen: www.ec.europa.eu/environment/EMAS/EMASawards/index.htm

HASI ZAITEZ! EMASEN URRATSEZ URRATSEKO INPLEMENTAZIOA

EMASen erregistro ofizialaren onurak lortzeko zure erakundeak egin behar dituen zortzi urratsak:

1. INGURUMEN-AZTERKETA BAT EGIN

Zure erakundeak hasierako ingurumen-azterketa bat egin behar du, honako elementu hauek kontuan hartuz: erakundearen jarduera, produktu eta zerbitzuen ingurumen-alderdiak, horiek ebaluatzeko metodoak, erakundearen lege- eta arau-esparrua, eta ezarrita dauden ingurumen-kudeaketako jardunbide eta prozedurak.

2. INGURUMEN-POLITIKA BAT EZARRI

EMASen erregistratzeko, zure erakundeak ingurumen-politika bat ezarri behar du eta ingurumen-lege esanguratsu guztiak betetzeko konpromisoa hartu; halaber, ingurumen-jokabide etengabe hobetzeko konpromisoa ere hartu behar du.

3. INGURUMEN-PROGRAMA BAT GARATU

Zure erakundeak ingurumen-programa bat garatu behar du, ingurumen-helburu espezifikoetarako buruzko informazioarekin. Ingurumen-programa zure erakundeari bere eguneroko jardunean laguntzeko tresna bat da, hobekuntzak planifikatu eta inplementatzerakoan.

4. INGURUMEN-KUDEAKETAKO SISTEMA BAT EZARRI (IKS)

Ingurumen-azterketaren emaitzak eta ingurumen-politika (haren helburuak) oinarritzat hartuta, IKS bat ezarri behar duzu. IKSaren xedea da zure erakundearen ingurumen-politikaren helburuak betetzea, goi zuzendaritzak definitutakoaren arabera. Kudeaketa-sistemak definitu behar ditu ardurak, helburuak, bitartekoak, operazio-prozedurak, prestakuntza-beharrak, eta komunikazio- eta ikuskapen-sistemak.



5. BARNEKO INGURUMEN-AUDITORIA BAT EGIN

IKSa ezarrita dagoenean, ingurumen-auditoria bat egin behar duzu. Auditoriak bereziki ebaluatzen du ea IKSa martxan dagoen eta ea bat datorren zure erakundearen politika eta programarekin. Halaber, auditoriak aztertzen du ea zure erakundeak betetzen dituen ingurumenaren alorreko arau-betekizun esanguratsuenak.

6. INGURUMEN-ADIERAZPEN BAT PRESTATU

Zure erakundeak bere ingurumen-jokabidearen adierazpen publiko bat argitaratu behar du. Ingurumen-adierazpenak deskribatzen ditu bai ingurumen-helburuen inguruan lortutako emaitzak eta bai zure erakundearen ingurumen-jokabidea etengabe hobetzeko xedez etorkizunean hartuko diren neurriak.

7. EGIAZTAPEN ETA BALIDAZIO INDEPENDENTEAK, INGURUMEN-EGIAZTATZAILE BATEN BIDEZ

EMASen ingurumen-egiaztatzaile batek ingurumen-azterketa, IKSa eta auditoriaren prozedura aztertu eta egiaztatzen ditu, eta zure erakundearen ingurumen-adierazpena balidatzen du. Egiaztatzaile horrek EBko Estatu bateko EMAS erakunde eskudunak emandako akreditazio edo baimena du.

8. EB-KO ESTATU KIDEAREN ERAKUNDE ESKUDUNAREKIN ERREGISTRATU

Balidatuta dagoenean, zure ingurumen-adierazpena EMASen erakunde eskudunari bidaltzen zaio erregistratzeko, eta argitaratu egiten da. Zure erakundeari EMASen erregistro-zenbaki ofizial bat ematen zaio eta EMASen logoa erabiltzea baimentzen zaio.

ARGITALPENA

Europako Batzordea

3x3 ARRAZOI ON EMAS-ERAKO

Luxenburgo: Europar Batasuneko Argitalpen Zerbitzua, 2012

Editoreak: Rolf-Jan Hoeve | rolf-jan.hoeve@ec.europa.eu
Europako Batzordea–Ingurumen ZN–
C1-Ekoizpen eta kontsumo jasangarriak

Daniel Weiss | weiss@adelphi.de
adelphi consult GmbH
Caspar-Theyss-Str. 14a, 14195 Berlin Alemania

Testua: Rolf-Jan Hoeve, Daniel Weiss

Diseinua: Steffen Kalauch | Visuelle Kommunikation

Estatusa: 2012ko iraila
Argitalpen elektronikoko gisa eskuragarri
inprimatuta, eskatzen bada soilik.

ISBN: 978-92-79-26096-4
DOI: 10.2779/67448

ITURRIEN ZERRENDA

- ¹ *Milieu and Risk & Policy Analystsek Europako Batzordearentzat 2009an prestatutako "Study on the Costs and Benefits of EMAS to Registered Organisations" azterlanaren arabera. Hemen dago eskuragarri: www.ec.europa.eu/environment/EMAS/pdf/news/costs_and_benefits_of_EMAS.pdf*
- ² www.ec.europa.eu/environment/EMAS/EMASawards/winners_2010.htm
- ³ www.ec.europa.eu/environment/EMAS/EMASawards/winners_2010.htm
- ⁴ *EMAS Factsheet: EMAS Boosts Resource Efficiency www.ec.europa.eu/environment/EMAS/pdf/factsheet/EMASResourceEfficiency.pdf*
- ⁵ *E.g. Rennings et al. 2005: The influence of different characteristics of the EU environmental management and auditing scheme on technical environmental innovations and economic performance. In: Ecological Economics.*
- ⁶ *COM (2001) 366.*
- ⁷ www.globalreporting.org (sarrera: 2011/12).
- ⁸ www.cdproject.net/en-US/WhatWeDo/CDPNewsArticlePages/linking-up-GRI-and-CDP.aspx (sarrera: 2011ko abenduak).
- ⁹ *Emisio Industrialen Zuzentaraua IPPC (Integrated Pollution Prevention and Control) Zuzentarauaren ondorengoa da.*
- ¹⁰ *Study on the Costs and Benefits of EMAS to Registered Organisations" azterlanaren arabera. EBko EMASen webgunean dago eskuragarri.*
- ¹¹ www.ec.europa.eu/environment/gpp/what_en.htm (sarrera: 2011/12)

WWW.EC.EUROPA.EU/ENVIRONMENT/EMAS

KH-30-12-783-EN-C



Argitalpen-bulegoa

ISBN 978-92-79-26096-4



9 789279 260964